

EUSKADIKO ENERGIA BERRIZTAGARRIEN LURRALDE PLAN SEKTORIALA

HERRITARREK PARTE HARTZEKO PROGRAMA

AURKIBIDEA

1. AURREKARIAK	3
2. ENERGIA BERRIZTAGARRIEN LPS IZAPIDETZEA ETA HERRITARREN PARTE-HARTZEA	5
3. DOKUMENTUAREN XEDEA	7
4. PLANTEAMENDUA	9
5. METODOLOGIA	13
5.1 Prozesuaren helburuak	13
5.2 Printzipioak	13
5.3 Kanalak	14
6. EGITURA (FASEAK)	16
6.1 1. fasea. Prestaketa	16
6.2 2. fasea. Aurretiazko kontsultak	18
6.3 3. fasea: Parte-hartzea	19
6.4 4. Fasea: Amaiera	20
6.5 5. Fasea. Ondorengo izapidetze-faseetan parte hartzea	22
7. KUDEAKETA SISTEMA	24
7.1 Komunikazioa	24
7.1.1 Planteamendu orokorra.....	24
7.1.2 Komunikaziorako hizkuntzak.....	24
7.1.3 Online estrategia.....	24
7.1.4 Hizkuntza	25
7.2 Jarraipena eta erregistroa	25

1. AURREKARIAK

Energia berriztagarriari dagokienez, oro har, EAeko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroek Aplikazio Arauen 16. artikuluan zehazten dute Energia Berriztagarrien Lurralde Plan Sektorialak zein irizpide bete beharko dituen. Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren uztailaren 30eko 128/2019 Dekretuak onartu zituen behin betiko Gidalerro horiek.

Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legeak laugarren xedapen gehigarrian ezartzen duenez, Eusko Jaurlaritzak, Legea indarrean jarri eta bi hilabeteko epean, hasi beharko du Energia Berriztagarrien Lurralde Plan Sektoriala egiten, eta bi urteko epean aurkeztu beharko du.

Era berean, 2019ko otsailean, Eusko Legebiltzarrak Energia Berriztagarrien Lurralde Plan Sektoriala egiteko eskatu zion Eusko Jaurlaritzari.

Agindu horietatik abiatuta, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak Euskadiko Energia Berriztagarrien Lurralde Plan Sektoriala prestatzeari ekin dio, energia berriztagarrien mapa zehaztuko duen plangintza-tresna eduki ahal izateko, eskura dauden teknologiek ahalbidetzen dituzten modalitate guztiak barne hartuta. Lurralde Plan Sektoriala antolamendu-tresna bat da, eta ibilbide-orri gisa erabiliko da, erreferentziatzako mapa batekin berriztagarrien modalitate guztietarako.

Gero eta handiagoa da klima-aldaketaren ondorio kaltegarriari buruzko kontzientzia, eta, ondorioz, hainbat dokumentu estrategiko eta plangintza-dokumentu onartu dira energiaren eta ingurumenaren alorretan. Dokumentu horien ia helburu komuna da jatorri berriztagarriko iturriek energia-iturri gisa protagonismo handiagoa hartzea, hori garrantzitsua eta beharrezkoa baita. Oro har, energia berriztagarriek ingurumenean duten eragina oso onuragarria izango dela esan daiteke, energia-ekoizpena deskarbonizatu egingo baita, eta, hala, berotegi-efektuko gasen emisioak murriztuko dira. Gainera, baliabide berriztagarriak eskuratzeak ez ditu sortzen berriztagarriak ez diren baliabideen horniduraren berezko eraginak, zuzenean eskuratzen baitira, erauzketa inbaditzaileak, hornikuntzarik edo baliabideen garraiorik gabe, petrolioaren eratorrien kasuan, esate baterako, gertatzen ez den bezala. Gainera, euskal energia-sektorearen independentzia handiagoa lortuko da, lurraldearen erresilientzia handituko da klima-aldaketarekiko eta ekonomia zirkularra sustatuko da. Bestalde, energia berriztagarriak garatzea onuragarria izango da eragile gehienentzat ere, negozio-aukerak eta enplegu berdea sortuz, jendea landa-eremuetan ezarriz eta administrazioen garapen jasangarriko helburuak betez.

Hala ere, energia mota horren abantaila energetikoak, sozialak, ekonomikoak, teknologikoak eta ingurumenekoak ere eztabaida ezinak diren arren, inolako zalantzarik gabe, horrelako instalazioek behar duten lurzoruaren okupazioak eragin handi samarra izan dezake Euskal Autonomia Erkidegoan. Energia berriztagarrien garapenak Euskadiko lurraldean izango duen eragin hori desberdina izango da erabilitako teknologiaren arabera, energia berriztagarriak garatzeko balio-kate osoan txertatu beharko diren produktuen heterogeneotasunaren, murrizketaren eta berrerabileraren arabera, bereziki instalazio horien eraikuntza-ezaugarriak erabiltzeari dagokionez, bai eta horiek ezartzeko leku egokiei dagokienez ere.

Teknologia horiek klima-aldaketarekin, paisaiarekin, kultura-ondarearekin, ingurune sozioekonomikoarekin, segurtasunarekin eta osasunarekin eta ingurumen-balioekin bateragarriak direla bermatzeko, beharrezkoa da eremu horiekin zerikusia duten plangintza-, kudeaketa- eta legegintza-tresna guztiak sakon aztertzea, oro har ondorioztatu ahal izateko horiekin bateragarria izango dela energia berriztagarrien ezarpena, eta, gainera, haien gidalerro, helburu eta jarduera-ildo asko indartuko dituela.

Beraz, garrantzi handiko erabakia da instalazio horiek kokatzeko lekuen aurreikuspena eta hautaketa, eta horri erantzun nahi dio prestatu nahi den Lurralde Planak, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-antolamenduan identifikatu, hautatu eta integratu ahal izateko jatorri berriztagarriko energia-aprobetxamendurako lekurik egokienak, betiere kontuan hartuta ingurumen-faktoreak duen garrantzi handia.

Energia Berriztagarrien Lurralde Plan Sektoriala (LPS) egiteko prozeduran, administrazio-izapideekin batera (Hasiera, Aurrerapena, Hasierako onarpena eta Behin betiko onarpena), parte-hartze prozesu bat egingo da, adostasun publikorako mekanismo gisa. Mekanismo hori Eusko Jaurlaritzak sustatuko du, Euskadirako energia berriztagarrien lurralde-eredu berriaren oinarriak modu sozial eta partaidetuan definitzeko. LPSa egiteko prozesuan zehar eramango da aurrera parte-hartze prozesu hori, eta Aurrerapenerako nahiz Hasierako eta Behin betiko onarpenetarako bideak, moduak eta espazioak ezarriko dira. Horrenbestez, plana lantzeko eta onartzeko prozesuan zehar egingo da osorik parte-hartze prozesua. Testuinguru horretan, planteatu da bi dokumentu egitea Energia Berriztagarrien LPSaren Aurrerapen-dokumentuaren aurretik:

- Alde batetik, **Oinarrizko dokumentua**, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko zerbitzu teknikoek barruan egindako dokumentu teknikoa. Dokumentu horretan, parte hartzeko mahaiaren edukiak adieraziko dira, eta prozesu hori abian jartzeko abiapuntua izango da.
- Bestalde, **Parte-hartze plana**, Energia Berriztagarrien LPSa egiteko parte-hartze prozesua aurrera eramateko. EAEko Lurralde Antolamenduari buruzko 4/1990 Legeak ezartzen dituen izapideak egin aurretik egin behar da parte-hartze hori, eta helburua da herritarrek oro har, erakundeek eta elkarteek, interes-taldeek eta instituzioek parte hartzea energia berriztagarrien etorkizuneko lurralde-ereduaren definizioan.

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila izango da parte-hartze prozesuaren buru, bere gain hartuko ditu erakundeen parte-hartzeari dagozkion zereginak, eta Aurrerapen-dokumentuan sartuko ditu, hasierako onarpena eman aurretik, parte-hartzetik abiatuta adostutako ideiak eta proposamenak.


2. ENERGIA BERRIZTAGARRIEN LPS IZAPIDETZEA ETA HERRITARREN PARTE-HARTZEA

Lehenbizi, komeni da ongi bereiztea parte-hartze prozesua eta Euskadiko Energia Berriztagarrien LPSa egiteko prozesua.

Energia Berriztagarrien LPSa onartzeko izapideak Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legean ezarritako izapideen arabera egingo dira, eta, horregatik, fase bakoitzerako bere herritarren parte-hartze prozesua egingo da.

Dokumentu honetan azaltzen den parte-hartze prozesua Energia Berriztagarrien LPSa egiten hastean gauzatuko da. Prozesu sozial paraleloa eta laburragoa da, eta euskal herritar guztiek ezagutu eta parte hartu ahal izango dute. Horren emaitza, lehenik, hasieran onetsi beharreko Aurrerapen-dokumentuan islatuko da, gero behin-behineko onarpenean, eta, gero, behin betiko onartuko den LPSan. Fase bakoitzak antzeko metodologia erabiliko du, hasierako fasean erabilitako tresnak aprobetxatuz, baina fase bakoitzaren errealitatera egokituta.

Energia Berriztagarrien LPSaren behin betiko onarpena lortzeko beharrezko prozedura erakusten du hurrengo eskemak, eta, bertan ikus daitekeenez, fase guztietan jasoa dago parte-hartzea.



Parte hartzeko prozesu formal hutsetik harago joan nahi du dokumentu honen edukiak, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legean eta lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituen martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuan ezarritako mekanismoen bidez egituratua. Hau da, legez ezarritako kontsulta edo entzunaldi soiletatik eta hasieran onartutako Aurrerapen-dokumentua jendaurrean egoteko alditik harantzago doa.

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak ezinbestekotzat jotzen du herritarrek parte hartzeko prozesua LPSa egiteko hasierako fasetik aurrera eramatea, hau da, Aurrerapen-dokumentua idazteko fasean hastea, oinarrizko dokumentu batetik abiatuta. Erakundeen, interesa duten gizarte-eragileen eta, oro har, herritarren ekarpenak hasiera-hasieratik edukitzea funtsezkoa da Energia Berriztagarrien LPSa modu gardenagoan eta euskal herritarren ahalik eta adostasun handienarekin onar dadin. Dokumentu honen hurrengo ataletan zehazten dira lehen fase horren irismena, helburuak, metodologia eta norainokoa, "Oinarrizko dokumentu" batetik abiatu eta, parte-hartze prozesutik eratorritako ekarpenek elikatuta, Aurrerapen-dokumentua idatzi arte.

Baina herritarrek parte hartzeko prozesua ez da bukatuko hasierako fase horretan; izan ere, Aurrerapen-dokumentua hasieran onartu ondoren, eutsi egingo zaio parte-hartze prozesu horri. Horretarako, hasieran onetsitako dokumentua jendaurrean jartzeko eta lurralde-administrazio interesdunei entzunaldia emateko beharraz gain, sortutako dokumentazio guztia Irekian argitaratu eta eskuragarri jarriko da, nahi duen pertsona edo elkarte orok bere iruzkinak edo ekarpenak egin ditzan. Entzunaldiaren eta jendaurreko erakustaldiaren legezko epea amaitutakoan, jasotako alegazioak, iruzkinak eta ekarpenak aztertuko dira. Aztertu eta erantzun ondoren, erantsi egingo dira, beharrezkoa bada, behin-behinean eta gero behin betiko onartu beharreko dokumentuari forma emateko, Ingurumen Adierazpen Estrategikoa egin ondoren. Behin betiko onarpena dekretu gisa emango da, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

3. DOKUMENTUAREN XEDEA

Euskal Autonomia Erkidegoko Energia Berriztagarrien Lurralde Plan Sektoriala egiteko parte-hartze programa aurkeztu eta garatzen du dokumentu honek.

Lurralde-eraginarekin loturiko eskumenak dituzten Eusko Jaurlaritzako sailek egindako planak dira LPSak, eta Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak garatzen dituzte, gidalerro horiek izanik euskal lurraldearen plangintza globalerako tresna nagusia. Energiaren alorrean, 2002an onartu zen Energia Eolikoaren lehen LPSa. Aurreko urteetan hainbat berrikuspen- eta eguneratze-prozesu egin ondoren, 2019an hasi zen Energia Berriztagarrien LPSa idazteko prozedura.

Energia Berriztagarrien LPSa egitea funtsezkoa da euskal errealitate fisikoa, lurraldekoa eta politika publikoa kolektiboki eraikitzeko, bai 2050erako Klima Aldaketaren Euskal Estrategian, bai 2030erako Euskadiko Energia Estrategian ezarritako helburu berrien barruan. LPSa idaztea prozesu zehatza da, eta aintzat hartu behar ditu euskal lurralde-eredua eraikitzeko egindako ibilbidea eta ahalegin historikoa, prozesu hori modu parte-hartzailean planteatuz.

LPSa idazteko parte-hartze prozesua Eusko Jaurlaritzak sustatutako adostasun publikorako mekanismoa da, Euskadin energia berriztagarrien arloan eredu berriaren oinarriak modu sozialean eta partaidetzan definitzeko. Parte-hartze prozesuari buruz hitz egitean, prozesu hori ez da mugatu nahi kontsulta eta informazio publikorako arauz ezarritako parte-hartze bideetara. Ahalik eta parte-hartze zabal eta askotarikoenaren beharra azpimarratu du Eusko Jaurlaritzak.

Energia Berriztagarrien Lurralde Plan Sektorialaren Aurrerapen-dokumentua ekarriko du horrek.

Lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituen martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuak bere 2.a) artikuluan printzipio orokor gisa jasotzen du herritarrek parte hartzea lurralde-antolamenduko tresnak onartzeko prozeduretan; 3. artikuluan, berriz, lurralde- eta hirigintza-plangintza izapidetzean herritarren parte-hartzea sartzeko modua garatzen du.

Herritarrek parte hartzeko programa da, beraz, Eusko Jaurlaritzaren parte-hartze publikoaren estrategia definitzen duen dokumentua Energia Berriztagarrien Lurralde Plan Sektoriala egiteko prozesuan, eta idazte-prozesuaren fase guztietan garatuko da parte-hartze hori.

Energia Berriztagarrien Lurralde Plan Sektoriala egiteko prozesua parte-hartze prozesu zabal baten esparruan gauzatu behar da. Parte hartzeko eremu horrek hasierako bi dokumentu egitea planteatzen du, dokumentu honen sarreran jada aipatu direnak, parte-hartze prozesua hasteko oinarri gisa:

- **Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak** egindako dokumentu tekniko bat, parte hartzeko tresnen bidez jorratu beharreko gaiak jasoko dituen (**Oinarrizko dokumentua**). Dokumentu hori eduki teknikoen laburpena izango da, bai eta prozesua abian jartzeko abiapuntua ere.
- **Parte-hartze Plana**, Energia Berriztagarrien LPSa egiten den bitartean parte-hartze prozesua garatzeko. Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legearen III. kapituluak lurralde-plan sektorialetarako ezartzen dituen izapideekin batera egingo da parte-hartze hori. Asmoa da erakunde interesdunei eta, oro har, herritarrei parte harraraztea energia berriztagarrien etorkizuneko lurralde-ereduaren definizioan. Azken batean, parte hartzeko prozesuaren ibilbide-orria ezarriko duen dokumentua da.

Herritarrek parte hartzeko proposamen honen bidez, zabaldu egin nahi da legeak instituzionalizatutako parte-hartze publikorako bidea, herritarrek parte hartzeko aurretiatzko maila zabalagoa sortuz eta antolatuz, Euskadiko Energia Berriztagarrien Lurralde Plan Sektoriala onartzeko prozesua gidatzeko plangintza-dokumentuak egiteko faseetan eragina izan dezan.

Dokumentuak honako atal hauek ditu:

- 1. Planteamendua.** Parte hartzeko prozesuan inplikaturako pertsonen konpromisoen eta ahaleginen oinarriak edo abiapuntuko baldintzak eta helburuak planteatzen dira.
- 2. Metodologia.** Prozesu osoaren oinarri izango diren tresnei eta partaidetzako lan-sistemari buruzko gako batzuk azaltzen dira, bai eta prozesuaren antolamendu kontzeptuala jasotzen duen grafiko bat ere.
- 3. Egitura.** Prozesua egituratzen duten ondoko ondoko faseak deskribatzen dira.
- 4. Ekintzak.** Egin beharreko zereginak eta ekintzak, lanen edukia eta fase bakoitzean lortu beharreko emaitzak zehazten dira.
- 5. Kudeaketa-sistemak.** Prozesuaren alderdi tekniko garrantzitsuenak, komunikazioa edo zabalkunde publikoa, parte hartzeko prozesu osoa erregistratzeko eta dokumentatzeko modua eta parte-hartzea berdintasunez garatzeko neurriak azaltzen dira atal honetan.

4. PLANTEAMENDUA

Bizi dugun errealitate politiko, sozial eta ekonomiko konplexu, dinamiko eta askotariko honek aspaldi utzi du agerian administrazioaren eta herritarren arteko harreman-eredu berri baten beharra. Sortzen ari den egoera horrek gobernatzeko modu berri bat finkatzea eskatzen du, gizarte-premiei eraginkortasunez, efizientziaz, modu iraunkorrean eta berdintasunez eta inklusioz erantzungo diena, eta erabakiak hartzeko prozesuak erraztuko dituen, bai eta administrazioaren ebaluazio-mekanismoak ere.

Herritarrei eragiten dieten erabakiak nola hartzen diren, administrazioaren jarduera publikoa eta politikoa zein den eta erabakiak zein irizpideren arabera hartzen diren jakiteko beharrezkoak diren tresnak eskura dituztenean, orduantxe bakarrik eman dezakete herritarrek iritzia eta modu eraginkorrean parte hartu.

Erronka handiak dituen mundu global honetan, lehenetasun soziala da garapen jasangarriaren aldeko apustua egingo duten lurralde adimendunak eta kohesionatuak eraikitzea. "Lurralde adimenduna" kontzeptua aipatzen dugunean, ez gara alderdi teknologikora mugatzen, baizik eta adimenduntzat hartzen dugu ekonomiaren, gizartearen eta ingurumenaren arloan garapen jasangarriko dinamikak diseinatu eta abian jartzeko gai den lurraldea, egungo errealitatea hobetzeko lan eginez, baina baita epe luzearako joerak eta erronkak kontuan hartuz ere.

Konfiantza da, inolaz ere, gizarte edo lurralde adimendunetan oinarritutako proiektu kolektibo horien arrakastaren gakoetako bat, eta inplikaturako interesdun guztien jardun arduratsu eta gardenak sortu behar du hori, baina erakundeek eginkizun nagusia dute horretan. Horregatik, gobernu irekiaren elementuak, hala nola parte-hartzea, gardentasuna eta, bereziki, lankidetzaren publiko-pribatua, gero eta protagonismo handiagoa hartzen ari dira erakundeen agendan.

Herritarren parte-hartzeak hainbat onura dakarzkie bai Administrazio Publikoari bai herritarrei, eta, horren ondorioz, gizartearen eskakizun bati erantzutetik (jarrera erreaktiboa) kudeaketa publiko hobea lortzeko aukera izatera igaro behar du parte-hartzeak (jarrera proaktiboa), horrek onura ukaezinak ekarriko baititu.

Hainbat ekintza eta ekimen biltzen ditu herritarren parte-hartzeak pertsonen erabakiak hartzen parte har dezaten bultzatzeko, beren ikuspuntuak, ezagutzak eta baliabideak eskainiz. Bi norabideko komunikazio-prozesua da, informazioa trukatzeko eta eragileen eta erredakzio-taldearen arteko elkarreragina sustatzeko bidea eskaintzen duena.

Prozesu horiek lagundu egiten dute herritarrek duten eginkizunaren kontzientzia handiagoa har dezaten lurraldeak dituen baliabideak zaindu, kudeatu eta hobetzeko erabakiak hartzeko orduan, eragileek dituzten kezkak, beharrak eta balioak identifikatu eta txerta daitezten bultzatuz erabaki horiek hartzean. Horren emaitza da ideiak eta ikuspuntuak biltzea, eta, horrez gain, herritarren ahalduntzea bultzatzen du, eta erakunde publikoen konpromisoa eta gardentasuna erakusten ditu.

Lurralde-antolamenduaren jardueraren beraren printzipio gisa eratzten da herritarren parte-hartzea, eta administrazioak bideratu behar du, horretarako bide egokiak ezarrita. Demokrazia ordezkatzailaren osagarritzat hartu behar da, eta ez haren alternatiba gisa. Herritarrek parte hartzeko programa honen bidez, zabaldu egin nahi da Eusko Legebiltzarraren legediak instituzionalizatutako parte-hartze publikoaren bidea; Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolakuntzari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legean zehazten dira izapide horiek, eta herritarren parte-hartze maila zabalagoa sortu eta antolatu nahi da, lurralde-antolamenduko dokumentuak egiteko aurretiazko faseetan jardun ahal izateko. Beraz, nabarmendu behar dugu bi prozesu paralelo daudela, eta komeni da bereiztea: **parte-hartze**

prozesua eta Euskadiko Energia Berriztagarrien LPSa egiteko eta onartzeko prozesua bera.

Hemen azaltzen den parte hartzeko prozesua Energia Berriztagarrien LPSa egiten hastean gauzatuko da. Prozesu sozial paraleloa eta laburragoa da, eta euskal herritar guztiei dei egiten zaie LPSaren ideia ezagutu eta parte har dezaten. Horren emaitza, lehenik, Aurrerapen-dokumentuaren onarpenean islatuko da, eta, azkenik, Euskadiko Energia Berriztagarrien LPSaren behin betiko onarpenean.

Parte-hartze prozesuaren barruan, argi eta garbi bereizitako bi parte-hartze eremuri buruz hitz egin behar da: batetik, **erakundeen parte-hartzea**, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak barruan egina, hainbat organoren esku-hartzearen bidez (Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordea (EAELAB), Lurralde Politikako Aholku Batzordea, etab.), eta, bestetik, **parte-hartze soziala**, parte-hartze programa honen helburu nagusia.

Proposamen horrek oreka egokia izan behar du herritar guztiei ahalik eta parte-hartze zabalena eta malguena eskaintzearen eta egituratze operatibo eta praktikoaren artean. Egitura hori argi eta garbi zehaztu behar da, proiektua idatzi duen taldeak eta Energia Berriztagarrien Lurralde Plan Sektoriala egiteko eta onesteko eskumena duten organoek partaidetza hori ezagutu, laburbildu eta aintzat har dezaten. Horrela, modu argi eta zehatzean lortu ahal izango da, onartu beharreko lurralde-antolamenduko tresnari buruz, Euskal Autonomia Erkidegoko herritarrek duten iritzia.

Energia Berriztagarrien Lurralde Plan Sektorialeko Herritarrek Parte hartzeko Programa etengabeko informazio- eta prestakuntza-prozesutzat hartu behar da, analisi eta partaidetza prozesutzat, eduki irekiei buruzko kontsulten eta eztabaiden bidez, eta, azkenik, horiei buruzko ondorio eta iritzi sintetikoen prozesutzat, honako irizpide hauen arabera:

- Eragileen aniztasuna eta dibertsitate soziala: herritarren eta eragile soziopolitiko, kultural, akademiko eta ekonomikoen dibertsitateari eta aniztasunari erantzun beharko die prozesuak, eta lurraldean dauden diskurtso guztien ordezkari bilatu.
- Askotariko parte hartzeko mekanismoak eta bideak: prozesuak parte hartzeko hainbat mekanismo eta bide ezarri beharko ditu, herritarren eta lurraldeko eragileen gaitasunak eta beharrak aintzat hartuta, parte hartzeko eskubidea eta parte-hartze maila desberdinak bermatzeko.
- Informazio eta komunikazio eskuragarria eta zeharkakoa: komunikazio eta informaziorako bideak eta gailuak ezarriko dira etenik gabe prozesu osoan, irisgarritasun- eta gardentasun-printzipioetan oinarrituta. Gainera, parte-hartzearen helburu kuantitatiboak eta kualitatiboak betetzeko, informazioak eta komunikazioak behar bezala egituratuta eta planifikatuta egon beharko dute, eztabaida gizarteko maila guztietara irits dadin.

Prozesua aurretiazko azterketen eta aurrerapenaren fasean aktibatuko da, eta hurrengo faseetan jarraituko da, hau da, planaren hasierako, behin-behineko eta behin betiko onarpenaren faseetan. Parte hartzeko programa osatzen duten mekanismoen helburua da herritarren parte-hartzea ahalbidetuko duen esparrua eratzea, LPSaren eredu kohesionatuagoa lortzeko.

Badago garrantzi praktiko handiko printzipio bat herritarren parte-hartzea zuzena, aberatsa eta ordenatua izan dadin, hau da, herritarrek prestatzea, informazio erraz, argi eta praktikoaren bidez, lurralde plan sektorial batek ematen dituen edukiei eta ematen dituen aukerei buruz. Hori ez da interpretatu behar herritarren parte-hartzea hertsatzeko edo mugatzeko metodo gisa, baizik eta lurralde plan sektorial baten dokumentazioan eta zehaztapenetan benetan jaso daitezkeen alderdiak behar bezala tratatzeko ahalegin gisa, alderdi egiaz kritikoak eta interesgarriak

tratatzea eragozten duten ahaleginak eta denbora-galerak saihestuz. Hori dela eta, Sailak "Oinarrizko dokumentua" emango dio parte-hartze prozesuari, LPSan jorratu beharreko gaiak globalki kokatzeko. Herritarrei informazio/prestakuntza emateko printzipio hori oinarrizko elementua da herritarrek parte hartzeko prozesuan. Oinarrizko dokumentu hori laburbilduta idatzi beharko da, hizkera erraz eta ulergarriarekin, eta teknikoegia izateagatik kolektibo bakar bat ere ez baztertzeko ahalegina eginez.

Lehenengo fasean parte hartzeko prozesuaren amaieran, parte-hartze sozialaren ekarpenen azken dokumentua egingo da, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak idatzi beharreko Aurrerapen-dokumentuan aintzat hartzeko. Ondoren, lurralde plan sektorialak onartzeko ezarritako legezko prozedurarekin batera, hasierako, behin-behineko eta behin betiko onarpenetan kontsulta instituzional batzuk egitea ezartzen baitu, herritarrek parte hartzeko prozedurarekin jarraituko da.

Aipatu behar da prozesu horrek berezitasun batzuk dituela eta haiek markatuko dutela garapen osoa:

- Oso kontuan izan behar da LPSak EAE osoari dagozkiola, eskala handiko ikuspegiarekin. Eguneroko bizitzako alderdiei eragiten badiete ere, eskala-maila altu samarra izango dute azkenean LPS berrian txertatuko diren ideiek.
- Aurrekoaren ondorioz, parte-hartze aktiboagoa izan dezakete profil teknikoa duten erakundeek eta pertsonak. Egoera horri aurre egiteko ahalegina egingo da, gizarte osoaren parte-hartzea erraztuz, hizkuntza ez-teknifikatu eta inklusiboa izango duten ekintzen bidez.
- Prozesuak ahalik eta gardentasun- eta irekitasun-maila handienak izatea planteatu da.

Horrenbestez, prozesu honen erronka nagusia da lurralde-eredu energetiko berri bat planteatzea, eguneratua, adostua eta etorkizunari begira, indarrean dauden lurralde-tresna guztietatik abiatuta.

Honako hauek dira herritarrek parte hartzeko programaren helburu nagusiak:

- Energia Berriztagarrien Lurralde Plan Sektoriala egiteko prozesuan herritarrek iritziak, sentsibilitateak eta kezak azaltzeko eta iradokizunak, alegazioak eta abar egiteko duten eskubidea onartzea.
- Herritarren ekarpenak sustatzea eta herritarrak inplikatzeko erabakiak hartzeko prozesuaren hasieratik, informazio ulergarria emanez, euskal gizartearen lagin ahalik eta adierazgarrienak eta orekatuenak parte har dezan LPS berrian.
- Eusko Jaurlaritzaren eta herritarren artean informazioa trukatzeko esparru egokia sustatzea.
- Eragile sozial eta ekonomikoekin adostutako prozesu bat sortzea, hartutako erabakietan gardena.
- Pertsona eta kolektibo guztientzako prozesu irekia eta inklusiboa izango dela bermatzea, genero-ikuspegian eta baztertuen dauden kolektiboetan arreta berezia jarritz.
- Herritarren ekarpenak erabiltzea eta bideratzea Energia Berriztagarrien Lurralde Plan Sektorialean txertatzeko.
- Energia berriztagarrien garapenean interesa duten sektore eta kolektibo guztiak identifikatzea, komunikatzea eta entzutea.

- Ahal den neurrian, sektoreen eta kolektiboen ordezkariak inplikatzearabakiak hartu aurretik aukerak eta alternatibak garatzeko.
- Herritarrei parte hartzeko eskubidearen eta eskubide hori erabiltzeko moduen berri ematea.
- Herritarrak, oro har, informatuta edukitzea Energia Berriztagarrien Lurralde Plan Sektorialari buruzko gaiei dagokienez.
- Energia berriztagarrien arloan ekintzen bideragarritasuna bultzatzea, interesa duten pertsonak hasieratik inplikatuz.
- Ziurtatzea Eusko Jaurlaritzak energia berriztagarrien arloan ez duela ekintza garrantzitsurik egingo Euskadiko segmentu interesdunei eta kaltetuei galdetu gabe.
- Eusko Jaurlaritzaren ekintzak, ahal den neurrian bederen, herritarren interesei eta kezkei erantzuten diela ziurtatzea.
- Herritarrek dokumentuan garatu nahi den Energia Berriztagarrien Lurralde Plan Sektorialaren eredia ulertzeko aukera dutela bermatzea; eredu hori, era berean, gida izango da datozen urteetan hartuko diren ekintzetarako eta erabakietarako.
- Alderdi interesdunek Energia Berriztagarrien Lurralde Plan Sektorialaren dokumentuaren emaitza aplikatzearen ondorioz proposatutako ekintzak ulertzeko aukera dutela bermatzea.
- Administrazioaren gardentasuna handitzea erabakiak hartzean.

Programa bat dator lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituen martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuaren 3. artikuluan ezarritakoarekin.

Plana formulatu, berrikusi edo aldatzeko hasierako erabakiarekin batera, parte hartzeko programa egin beharko da. Programa horren laburpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, eta honako mekanismo hauek aurreikusi beharko ditu gutxienez:

- *Parte hartzeko gida bat, herritarrek parte hartzeko prozesuaren jarraibideak eta edukiak ez ezik, xehetasunak ere deskribatuko dituena; horretaz gain, parte hartzeko prozesuan abiapuntu gisa erabiliko diren edukien laburpena jasoko da gida horretan.*
- *Jendaurreko bilkurak, ekimenaren edukia eta espedientea izapidetzean aurkez daitezkeen alternatibak azaltzeko.*
- *Dibulgazio-materiala: legediak eskatutako dokumentuekin batera prestatu beharko da, dokumentu horiek hedatzen eta ulertzen laguntzeko.*

Parte hartzeko prozesuaren planteamendu hori **Parte-hartze planaren** dokumentuarekin osatuko da, eta hark zehaztuko du parte-hartze soziala garatzeko esparrua.

5. METODOLOGIA

5.1 Prozesuaren helburuak

Honako helburu hauek planteatu dira:

- Eusko Jaurlaritzak **Energia Berriztagarrien LPSari** begira planteatutako **oinarrizko helburuak eta ildo estrategikoak kontrastatzea**, bai herritarrekin banaka, bai maila instituzional, sozial eta ekonomikoko eragile garrantzitsuekin.
- Batez ere eragile horien **ekarpenak jasotzea, Energia Berriztagarrien Lurralde Plan Sektorialaren Aurrerapen-dokumentuan eta Hasierako Dokumentu Estrategikoan sar daitezkeen baloratzeko.**

5.2 Printzipioak

Eragileen lankidetzak: ezaugarri horiek dituen proiektu bat aurrera eramateko, diziplinaz gaindiko lan teknikoak egin behar dira eta eragile instituzionalak eta sozialak koordinatu behar dira, eta, horrenbestez, proiektuaren konplexutasunaren arabera egitura metodologikoa behar du.

Metodologia horrek honako printzipio hauek ditu oinarri:

- **Eragileen lankidetzak:** beharrezkoa da eragileak inplikatzeko –udalak, foru-erakundeak, erakunde autonomikoak, eragile ekonomikoak, kulturalak eta sozialak–, negoziazioa, lankidetzak eta helburu eta estrategia bateratuak zehazteko espazioen eta mekanismoen bidez.
- **Diziplinaz gaindiko ikuspegia:** lan koordinatua egin behar da energiaren arloko hainbat diziplinako eragileen artean edo lanen garapenean parte hartu behar duten sailen artean: ingurumena, jarduera ekonomikoa, hirigintza eta mugikortasuna, ondarea eta genero-ikuspegia, besteak beste.
- **Prozesua hedatzea eta ikusaraztea:** hedapenerako eta komunikaziorako tresnak erabiliko dira fase guztietan, dibulgazio-ekintzen bidez, komunikabide tradizionaletan eta sare sozialetan komunikazio-kanpainak eginez eta prozesuaren faseak eta sortutako dokumentuak Irekian argitaratuta.
- **Herritarren inplikazioa:** herritarren inplikazioa eta proiektuaren balioekiko sentsibilizazioa sustatuko duen metodologia planteatu da.
- **Ebaluazioa eta jarraipena:** parte hartzeko prozesua aurrera eramateko, jarraipenerako eta ebaluazioa egiteko mekanismoak behar dira, egindako urratsak ikusarazteko, ekintzak gainbegiratzeko eta babesteko, eta gerta daitezkeen gorabeheren aurrean erabakiak egokitze. Horretarako, ikuspegi teknikoak eta herritarrenak bilduko dituzten sistemak planteatu dira. Bestalde, jarraipen-taldeak sortuko dira, lurralde-antolamenduan inplikaturako hainbat eragile barne izango dituztenak.
- **Parte hartzeko prozesuaren emaitzak jendaurrera itzultzea.**

Printzipio horiek lau printzipio nagusitan laburbil daitezke:

Prozesua behar bezala hedatzea, parte hartzeko eskubidea bermatzeko	Eragile garrantzitsu guztien parte hartzea
Parte hartzeko erraztasuna	Parte-hartze prozesuaren gardentasuna eta kontuak ematea

5.3 Kanalak

Bost kanaletan oinarritutako ekintzen inguruko metodologia aplikatzea proposatu da. Bost estrategia paralelo denboran, baina zeharkakoak edukian. Horietako bakoitzak hainbat helburu osagarri ditu, eta, oro har, ikuspegi integral batetik heltzen diote proiektuari: hedatzea eta ikusaraztea, herritarrak, parte-hartzea edo adostea, gobernantza edo erantzunkidetasuna eta dokumentazioa edo erregistroa.

Herritarrak

Lurralde-, energia- eta ingurumen-kontzeptuekiko kontzientziakoa, bai eta komunitate-nortasunarekiko ere, pedagogiaren eta informazioaren bidez.

Parte-hartzea edo adostea

Prozesu osoko lanerako eta erabakitzeko prozesuak egituratzen ditu kanal honek. Ereduak tokian-tokian eta globalki proposatzeaz arduratzen da, eta parte-hartzea bera osatzen duten edukiak lantzen ditu.

Gobernantza edo erantzukidetasuna

Prozesua administrazioak sustatuko eta babestuko duen arren, hartan parte hartuko duten eragileek, bai erakunde gisa, bai banaka, prozesuaren parte izan behar dute, ez bakarrik beren iritzia ematera gonbidatuta, baizik eta prozesuaren partaide bihurtuz.

Dokumentazioa edo erregistroa

Landutako eduki guztien erregistroaren eta dokumentazioaren (hedapenarekin batera), gordetzeko eta iragazteko sistemaren eta ondorengo integrazioaren baitan daude prozesuaren trazabilitatea eta gardentasuna.

Alde batetik, akta baten bidez jasoko da ekintza bakoitzaren emaitza, ateratako ondorioak multzoetan bilduta. Informazio hori webgunean ikusi ahal izango da eta eskalaren, gaien eta proposatu duten eragile edo talde motaren arabera antolatuko da.

Dokumentazio-prozesuaren gakoetako bat da gertaeren arteko loturari egin dakioken trazabilitatea edo segimendua. Izan ere, argi utzi behar da zer informazio igarotzen den, zein ekintzatatik zein ekintzatarara, eta zer kontakizun doan zeinen atzetik azken proposamena eraikitzeko orduan, aurreko guztien batura izango dena.

Horrelako prozesu batean, tartean eragile ugari eta askotarikoak egonda -batzuek jarrera desberdinak dituzte-, funtsezkoa da hainbat mekanismo ezartzea jasotzen diren pertzepzioak, alderdi gatazkatsuak eta potentzialak eta parte hartzeko estrategien emaitzak gardenak izan daitezen.

6. EGITURA (FASEAK)

Denboran elkarren segidako lau fasetan diseinatu da parte hartzeko prozesua. Prozeduraren fase bakoitzean dagozkion tresnak eta ekintzak ezarri dira, eta ekintza horietakoren bat denbora-garapenean gainjarri da.

Dokumentu honek faseak deskribatzen ditu, fase horietako bakoitzean herritarrek parte hartzeko mekanismo egokienak ezarri ahal izateko, legezkoak edo formalak ez ezik, parte-hartze eraginkorragoa bermatuko duten tresna aktiboagoak eta dinamikoagoak ere barne hartuta. Faseen ordena eta edukia funtsezkoak dira prozesuak behar bezala funtziona dezan.

6.1 1. fasea. Prestaketa

Hasierako etapa da eta fase honetan prozesuaren oinarriak planifikatzen eta finkatzen dira alderdi guztietan: parte-hartzearen egitura, ekintzak, hedapena edo komunikazioa, eragileen koordinazioa eta informazio-bilketa.

Fase hau barnean garatuko da batez ere, eta aldi honetan prestatze lanak egingo dira, honako hauek finkatzeko:

- Parte hartzeko ekintzen behin betiko zehaztapena.
- Parte hartzen duten eragile-taldearen egitura eta eginkizunak.
- Prozesuaren eta haren edukien hedapena edo komunikazioa.

Fase honen helburua da prozesua arrakastaz abiarazteko behar diren dokumentuak eta plangintza sortzea. Horrek esan nahi du:

- Prozesua zein esparru orokorretan garatuko den zehaztu behar dela (helburuak, mugak eta prozesuan jasotako ekarpenak txertatzeko sistema).
- Ekintzak inplementatzeko beharrezkoak izango diren eragileak eta baliabideak koordinatzeko lanak planifikatu behar direla, Parte hartzeko Gidaren zirriborroan ezarritakoaren arabera.
- Identifikatutako eragileekin eta, oro har, euskal gizartearekin prozesua hasteko testuinguru egokia eta mesedegarria sortuko duten lan eta ekintza pedagogikoak egin behar direla.

Prestatze-fase honetan sortu beharreko dokumentazioak honako entregagarri hauek izango ditu:

- **Parte-hartze plana.** Egitura metodologiko orokorra ezarriko du, ekintzak zehatz deskribatuko ditu, denborak, egutegia eta haietako bakoitzean parte hartuko duten eragileak barne, bai eta prozesu osoa kudeatzeko, biltzeko eta ikuskatzeko sistemak ere.
- **Eragileen mapa.** Energiaren arloarekin lotutako Euskadiko eragile sektorialak ezinbesteko eragileak dira Energia Berriztagarrien LPSa egiteko parte-hartze prozesuan. Eragile horiek zehazteko, Agenteen Mapa egingo da. Mapa horretan sartuko dira Euskadiko energiaren alorrean garrantzitsuak diren guztiak, eta parte hartzeko dinamika espezifikoak egingo dira haiekin, eragile horiek beren ikuspegia eta proposamenak helaraz ditzaten.

Taula bat proposatu da, parte hartzeko 3. fasearen aurretik kontsultatuko diren erakunde instituzional eta sozialekin.

- Euskadiko klusterrak (bereziki, energia-baliabideak modu intentsiboagoan erabiltzen dituztenak).
 - Enpresaburuen elkarteak eta sindikatuak.
 - Euskadiko energiaren sektoreko enpresak.
 - Energia asko erabiltzen duten eragileak.
 - Unibertsitate- eta prestakuntza-esparrua.
 - Ingurumenaren aldeko aldarrikapenetan eta kezka sozialetan inplikaturiko kolektiboak eta plataformak.
 - Ikerketa eta berrikuntza zientifikoarekin lotutako eragileak, zentro teknologikoak.
 - Landa-eremuarekin eta nekazaritzako eta basogintzako eremuekin berariaz lotutako eragileak.
- **Testuinguruan kokatzeko hasierako dokumentua edo parte hartzeko gida.** Testuingurua zehazteko eta identifikatutako sektoreekin lan-bilerak egin aurretik eman beharreko pausua izango da dokumentu hori, eta azterketa teknikoetatik eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika Sailak berak emandako informaziotik abiatuko da.

Hizkuntza ulergarria eta elebiduna izango du. Estilo bisuala izango du batez ere, Euskadin eta erreferentziako beste lurralde batzuetan energia berriztagarriekin lotutako elementuen egoerari, azken aldiko bilakaerari eta etorkizunekoari buruzko datu teknikoak errazago interpretatzeko.

Dokumentu hori publikoa izango da eta, beraz, Irekian argitaratuko da eta parte hartu behar duten eragile guztiei bidaliko zaie dinamiketan parte hartu aurretik.

Dokumentu bizia izango da, eta prozesu osoan zehar aldatuko da.

- **Komunikazioa.** Egin beharreko lanak, komunikatu beharreko prozesuaren mugarri nagusiak, bideak, protokoloak, mezuak eta planteatutako estrategiak identifikatuko dira, herritar guztien artean eta kolektibo espezifikoen artean ahalik eta hedapen handiena bermatzeko.
- **Dibulgazio-materialak.** Sentsibilizatzeko/prestatzeko ekintzarako beharrezkoa den dokumentazioa egingo da fase honetan.
- **Jardueren memoria.** Dokumentu hau prozesuaren hasieratik sortzea planteatu da, ordura arte egindakoaen memoria gisa erabiliko da, eta eguneratu eta zabaldu egingo da fase bakoitzaren amaieran.

6.2 2. fasea. Aurretizko kontsultak

Funtsezko fase honetan, Energia Berriztagarrien Lurralde Plan Sektorialaren hasierako planteamendua balioztatuko da parte hartzen duten eragileekin, garapen egiaztatuagoa eta partekatuagoa ziurtatzeko. Gero prozesuan parte hartuko duten eragileak inplikatu ahal izango dira fase honetan.

Fase honen bidez, geroko parte-hartze fasea bistaratzen hasiko da. Helburua da Parte-hartze plana eta haren edukiak aurkeztea, Energia Berriztagarrien LPSa garatzeko garrantzitsuak diren sektoreetako eta erakundeetako eragileen ekarpenak eta proposamenak jasotzeko.

Bloke honen barruan, honako jarduera hauek egingo dira:

- Bilera eta dinamika sektorialak.
- Erakundeen bilerak eta dinamikak.
- Eragileen parte-hartzearen ondorioen dokumentua egitea.

COVID-19k eragindako osasun-krisiaren ondorioz, aurrez aurreko bilerak egiteko behar diren prebentzio- eta segurtasun-neurri guztiak hartuko dira kontuan, bilera horiek ahal den neurrian saihesten saiatuz eta, batez ere, bide telematikoa erabiliz.

Entregagarriak, 2. faseko dokumentazioa:

- **Bildutako informazioa erregistratzea.** Eragileen parte-hartzearen ondorioen dokumentua prestatuko da, haien ikuspegia, iritzia eta prozesu parte-hartzailearen dinamiketan jasotako proposamenak bilduko dituena. Dokumentu hori 2. eta 3. faseen amaieran eguneratuko da. Dokumentu hori ez da ulertu behar eragileengandik jasotako pertzepzioen eta proposamenen datu-base soil gisa; aitzitik, orain arteko prozesuaren ondorio partzialen laburpen gisa funtzionatuko dute erregistro-sistema horrek eta sistemarekin batera doazen bistaratzeek.

Eranskin gisa jasoko da eragileen partaidetzatik jasotako proposamen guztien zerrenda. Alde horretatik, egindako ekarpen guztien kontrol zehatza egin beharko da, erregistro egiaztagarri baten bidez eta gaien eta iturrien arabera sailkatuta.

Proposamenei buruzko datu-basearen egitura

Proposamenaren ID	Proposamenaren data	Proposamenaren edukia (1)	Proposamena egiten duen pertsona edo eragilea	Proposamena egiten duen eragilearen sailkapena (2)	Proposamena egiteko erabilitako kanalaren sailkapena (3)	Proposamenaren gaiaren sailkapena (1. irizpidea) (4)	Proposamenaren gaiaren sailkapena (2. irizpidea) (4)
1							
2							
n							

(1) Proposamena, hitzez hitz

(2) Proposamenak hiru kategoriatan sailkatuko dira: sektore-eragileak, erakundeak eta herritarrek.

(3) Proposamenak prozesu-kanalen arabera sailkatuko dira (esaterako, kaleko informazioguneak, web postontzi birtuala, etab.)

(4) Proposamenak gaien arabera sailkatuko dira, gai horiek EEErekin batera zehaztu ondoren. Aldez aurretik pentsatu dugu proposamen bakoitzerako 2 sailkapen osagarri egiteko aukera. Adibidez, energia-trantsizioaren helburuari lotutako sailkapen bat egin liteke (energia-eraginkortasuna, energia berriztagarriak), eta sektoreen arabera beste sailkapen bat (bizitegiak, industria, espazio publikoa,...).

Prozesuaren gardentasuna eta jasotako iritzien eta haietatik abiatuta hartutako erabakien trazabilitatea bermatzeko mekanismoa da. Sistemaren bistaratzeak LPSaren web orrian ere argitaratuko dira aldizka, parte-hartzaileek edo interesa duen beste edonork prozesua zein egoeratan dagoen eta orain arteko emaitzak zein diren jakin ahal izateko.

- **Jardueren memoria.** Fase honetan egindako jarduerekin eguneratua, adibidez: kontsulta-bilerak erakundeekin eta eragileekin, irekieraren aurkezpena, prentsa-kanpaina eta egindako lanen txostena.

6.3 3. fasea: Parte-hartzea

Aurreko faseetan azaldutako lanen helburua da fase hau, parte hartzeko prozesuaren muina, ongi garatuko dela bermatzea.

Elkarteetako kide ez diren herritarren energia berriztagarrien inguruko jakin-nahiak eta kezkek ezagutzeko, dagoeneko hasita dagoen herritarren parte-hartze prozesuarekin jarraituko da. Horrek lagunduko du prozesua gizarteratzen eta LPSa herritarren ikuspuntutik idazteari begira kontuan hartu beharreko elementu eragileak atzematen.

Horretarako, aurreko fasean bezala, parte hartzeko hainbat bidetatik egituratuko da parte-hartzea, **online parte-hartzearen** eta **aurrez aurreko parte-hartzearen** artean banatuta. Aurrez aurreko parte-hartzea baldintzatu egin dezakeenez COVID-19 birusak eragindako osasun-krisia dagoen momentuak, ahaleginak egin beharko dira ereduak eta tresnak batez ere online formatuan ezartzeko.

LPSaren behin-behineko dokumentua egiteko hobekuntza-proposamenak adosteko prozesuak honelakoa izan behar du:

- **Irekia** parte-hartze maila desberdinetan (informazioa, kontsulta, ebaluazioa eta adostea) parte hartu nahi duten euskal lurraldeko eragile eta pertsona guztiei begira.
- **Gardena** eragileek prozesuan zehar emango dituzten pertzepzioak eta balorazioak biltzeko eta kudeatzeko sisteman.
- **Adostua** egitura metodologikoan (gaiak, mugak eta balizko hobekuntzak) eta hura ekintzetan ezartzean.
- **Inklusiboa** euskal gizartearen aniztasunari, sentsibilitate desberdinei eta kodeei dagokienez.
- **Eraginkorra** berrikuspen-prozesuan sar daitezkeen proposamenak egiteko gaitasunean.
- **Berritzailea**, Euskadi energia berriztagarrien arloan kultura berri batean kokatzeko gaitasunean, arloen, sektoreen eta eragileen arteko lankidetzan oinarrituta.

Horretarako, eskala guztietako eragileei eta herritarrei zuzendutako zenbait ekintza planteatu dira fase honetan. Ikus daitekeenez, 3 jarduera nagusi daude bloke horren barruan:

- **Komunikatzeko eta parte hartzeko bideak sortzea** identifikatutako eragileak inplikatzeko. Jarduera pedagogikoak sortuko dira, eskala bakoitzak euskal lurralde osoan duen eginkizunari buruzko hausnarketa bultzatzeko.
- **Parte hartzeko eta pertzepzioak jasotzeko ekintzak.** Parte hartzeko eta informatzeko prozesua hainbat eskalatan koordinatuko da: Tokikoa, Gune Funtzionala, Lurralde Historikoa eta EAE.

Parte hartzeko moduak honako hauek izan daitezke:

- Online parte hartzea.
- Aurrez aurre parte hartzea.

- Gaikako foroak.
- Jarraipen-lanak, erakundeek eta gizarteak parte hartzeko guneen bidez. Horien amaieran, herritarren parte-hartzeari buruzko ondorioen dokumentua egingo da.

COVI-19k eragindako egoera dela eta, proposatutako aurrez aurreko dinamikak telematikoki egingo dira.

3. fase honetan sortutako entregagarriak edo dokumentazioa honako hauek izango dira:

- **Dibulgazio-materiala.**
- Partaidetzaren ekarpenen eta bildutako informazioaren **erregistroa.**
- **Jardueren memoria.** Fase honetan egindako jarduerekin eguneratua eta egindako lanen txostena.

6.4 4. Fasea: Amaiera

Prozesua ixteko fasea honako helburu hauekin planteatu da:

- Aurreko faseetako emaitzak antolatu eta egituratuko dituen **Azken dokumentua** egitea, balorazioa egiteko eta/edo Energia Berriztagarrien LPSaren Aurrerapen-dokumentua prestatzeko prozesuan txertatzeko.
- Parte-hartzaile guztiei **itzulera irekia** eskaintzea, prozesuari, ateratako ondorioei eta izandako emaitzei dagokienez.

Fase hau, azken batean, ixte partziala da eta gainerako prozesuaren prestaketa. Une honetatik aurrera, berrikuspen-prozesuaren izaera ireki eta gardenari eusteko baliatu behar da adostasunerako, koordinaziorako eta antolaketarako egindako ahalegina. Parte hartzeko ahaleginak hasierako faseetan biltzea garrantzitsua bada ere, egin den bezala, ezinbestekoa da prozesuan parte hartu duten eragileek ulertzea beren inplikazioa eraginkorra izan dela eta emaitza zehatzak izan dituela.

Entregagarriak, 4. faseko dokumentazioa:

- **Partaidetzaren ekarpenen azken dokumentua.** Dokumentu honek prozesu osoaren ondorioak bilduko ditu, eta hauxe izango da Zuzendaritza Teknikoak Energia Berriztagarrien LPSaren Aurrerapen-dokumentua egiteko erabiliko duen dokumentu nagusia. Parte Hartzeko Gida bezala egituratua egongo da, dokumentu haren bilakaera baita.
- **Dibulgazio-materiala.** Dibulgazio-txostena fase honetan garatutako dibulgazio-materialarekin zabalduko da: liburuxka eta amaierako dibulgazio-materialak barne.
- **Jardueren memoria.** Fase honetan egindako jarduerekin eguneratua.
- Parte-hartze prozesuaren eta egindako komunikazio-lanen **ebaluazio-txostena.**

Ixteko etapan, egindako lan guztia itzuliko da, eta Aurrerapen-dokumentuan txertatuko diren ondorioak idatziko dira. Horretarako, prozesuaren memoria publikoa sortuko du Energia Berriztagarrien Lurralde Plan Sektorialaren Aurrerapen-dokumentua eta Hasierako Dokumentu Estrategikoa idazteaz arduratuko den talde teknikoak, honako hauek bilduko dituenak:


- Egindako prozesuaren azalpena.
- Prozesuaren adierazle kuantitatibo nagusiak.

- Jasotako iritzien eta ekarpenen deskribapena.
- Energia Berriztagarrien Lurralde Plan Sektorialaren Aurrerapen-dokumentuan eta Hasierako Dokumentu Estrategikoan txertatu diren ekarpenen deskribapena, bai eta txertatu ez direnena ere. Kasu horretan, ez txertatze hori justifikatuko duten arrazoiak azalduko dira.
- Prozesuaren balorazio orokorra, emandako balioari dagokionez.

Dokumentu hori behar bezala zabalduko da prozesuaren kanal espezifikoan eta Sailaren/EEEren eta Irekiaren kanal orokorren bidez.

6.5 5. Fasea. Ondorengo izapidetze-faseetan parte hartzea

Aurre-aurrerapenarekin (Oinarrizko dokumentua) hasiko den fasean egingo da arestian azaldutako parte-hartze prozesu hori, eta Garapen Ekonomiko, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak LPSa hasieran onartzean amaituko da. Hurrengo eskeman LPSaren izapideen garapena ageri da laburbilduta, eta parte-hartze publikoa (urdira) non txertatu den adierazia dago:



Aurreko diagraman ikusten den bezala, hasierako onespeneren ondoren, Energia Berriztagarrien Lurralde Plan Sektorialak **legez ezarritako izapideak** egiten jarraituko du, *Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolakuntzari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legean eta lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituen martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuan* xedatutakoaren arabera, eta plana **behin-behinean eta behin betiko onartzeko** faseak egingo dira. Hurrengo fase horietan, **herritarrek parte hartzeko prozesua aktibo** egongo da, **emaitzak komunikatzeko, zabaltzeko eta jendaurrera itzultzeko mekanismoen** bidez. Hala ere, lehen aipatu den bezala, aurreko ataletan deskribatutako prozesu parte-hartzailea hasierako onespeneren aurreko etapei dagokie, parte-hartzea Planaren fase goiztiarrenetatik bermatzeko eta sustatzeko.

7. KUDEAKETA SISTEMA

7.1 Komunikazioa

Komunikazioa oinarrizko tresna da parte hartzeko prozesuan eta prozesuaren ondoren, bai informatzeko bai parte hartzeko jarduerak dinamizatzeko tresna gisa.

Hizkuntza teknikoa hartzaileari egokitzeko eta mezua jende aurrean komunikatzeko edo transmititzeko lanak ditugu komunikazioaren alor honetan, arreta berezia jarrita euskararen sustapenean eta genero-ikuspegian, berdintasunezko prozesua sustatzeko. Zeregin eta metodologia horiek funtsezkoak izango dira euskal gizarte osoa prozesuaren partaide bihurtzeko.

7.1.1 Planteamendu orokorra

Komunikazioa funtsezkoa da herritarrek eta gainerako eragileek proiektua ezagutu dezaten eta, beraz, hartan inplika daitezten. Halaber, komunikazio-mekanismoen eginkizuna izango da prozesuari gardentasuna ematea, tokiko biztanleek senti dezaten LPSa egiteko prozesuaren garapenean egiten diren urrats guztiak ezagutzen dituztela.

Honako hauek izango dira helburuak: parte hartzeko prozesua ikusaraztea, herritarrek programatutako ekintzetan parte har dezaten lortzea eta herritarrak Energia Berriztagarrien LPSaren inguruan sentsibilizatzea.

7.1.2 Komunikaziorako hizkuntzak

Komunikazio eta sareen kudeaketa guztiak euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira. Beraz, bai sareetan bai hedabideen estrategian argitaratzen diren eduki guztiak bi hizkuntzetan egingo dira.

7.1.3 Online estrategia

Ahalik eta partaidetza zabalena izateko, nahi duten guztiak izango dute **Irekiari** lotutako **online kanalaren** bidez parte hartzeko aukera. Parte-hartzea bultzatzeko, ahalik eta errazena izatea proposatzen da, interes sozial ukazina duen gai honi buruz herritarrek duten iritzia ezagutzeko.

Webgunea proiektuaren eta prozesuaren funtsezko elementua da, eta hiru helburu beteko ditu:

- 1. HELBURUA: Prozesuari buruzko informazioa ematea, hasieran eta jarraian.
- 2. HELBURUA: Online parte hartzeko aukera ematea.
- 3. HELBURUA: "Prozesuaren bitakora gardena" izatea, eta hari buruzko dokumentazio guztia biltzea.

Helburu horiek lortzeko, espazio bat antolatuko da Irekian, parte hartzeko prozesu osoa monitorizatzeko eta kontatzeko, prozesu horren gardentasun-tresna bihurtzeko eta prozesuaren eta planaren eduki guztiak zentralizatu dituzten (dokumentazioa, estekak, txostenak, egutegia, etab.). Bertan adieraziko da Energia Berriztagarrien LPSa zer den, zer prozesu egingo den, nola parte har daitekeen, zer emaitza lortzen ari diren...

Online bidez jasotako proposamenekin eta iritziekin batera, LPSa egiteko prozedurak bete behar dituen jendaurreko informazioaldietan erakundeek eta partikularrek telematikoki aurkeztutako alegazioak jaso eta aztertu beharko dira.

7.1.4 Hizkuntza

Herritarrek, oro har, eta parte hartzeko prozesuan parte hartzea erabaki duten pertsonak edukiak uler ditzaten, beharrezkoa **da LPSko edukien hizkuntza teknikoak hizkuntza erraz eta ulergarria egokitzea.**

Parte-hartze prozesuak eta haren hizkuntzak arreta berezia eskainiko diote generoaren ikuspegiari. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bermatuko duen prozesua diseinatu behar da. Halatan, berariazko neurriak txertatu dira parte hartzeko prozesuaren fase guztietan emakumeen eta gizonen arteko tratua eta ordezkaritza orekatua sustatzeko. Horretarako, prozesuan zehar kontuan hartuko dira gizonen eta emakumeen egoerak, baldintzak eta beharrianak.

Oso garrantzitsua izango da komunikazioetan eta ekintzen garapenean hizkuntza inklusiboa edo ez-sexista erabiltzea, bai eta estereotipo sexistak indartzen ez dituzten irudiak erabiltzea ere.

7.2 Jarraipena eta erregistroa

Jarraipen- eta erregistro-sistema bat ezarriko da prozesuaren kalitatea bermatzeko. Parte hartzeko prozesuan eragile askok parte hartuko dutenez eta denboran luze iraungo duenez, sistema horren diseinua funtsezkoa da emaitza partzialak eta azken emaitzak gainbegiratu, trazatu eta ebaluatu ahal izateko, prozesu osoan informazioa bildu, sailkatu eta itzuliz: informazio argia, ulergarria eta xehatua.

Gainera, adierazleen sistema bat prestatuko da, prozesuan zehar abian jarriko den ekintza bakoitzaren betetze-maila baloratzen laguntzeko.